

ARAUDIA

EUSKAL HERRIA MENDI ERRONKA

67 KM (XII. edizioa)

ERRELEBOAK (VI. edizioa)

2026-VI-06



EUS 2026

2025/11/07

Antolatzailea: Euskal Herria Mendi Erronka Kirol Elkarte



EDUKIA

1. ANTOLAKUNTZA:	4
2. EGUNA ETA LEKUA:	4
3. IBILBIDEA:	4
4. PARTE-HARTZEA:	5
5. MATERIALA:	5
6. MAILAK:	7
7. TXAPELKETAK	7
8. SARIAK:	8
9. IZEN-EMATEA:	9
10. IZEN-EMATEAREN BALIOGABETZEAREN BERMEA	11
11. IZEN-EMATEAREN BALIOGABETZEA	12
12. SEINALEZTAPENA:	12
13. ANOA-GUNEAK:	12
14. KANPOKO LAGUNTZA:	13
15. IGAROTZE-KONTROLAK:	13
16. ERRELEBOA EMATEKO LEKUA ETA ORDUTEGI MUGAK	14
17. LASTERKETA UZTEKO LEKUAK	14
18. KANPORATZE-PUNTUAK ETA ORDUTEGI-MUGAK	15
19. KRONOMETRAJEA:	16
20. DORTSALEN BANAKETA:	16
21. KONTSIGNA-ZERBITZUA:	17
22. INGURUMENA:	17
23. OSASUN-ZERBITZUA:	18
24. SEGURTASUNA:	18
25. LAGUNTZA EZBEHARRETAN:	18
26. ERANTZUKIZUNA:	18
27. IRUDI ESKUBIDEAK:	18
28. LASTERKETA BERTAN BEHERA UZTEA:	19
29. IBILBIDE ALDAKETA:	20
30. PROBA ATZERATZEA, ETETEA ETA BERTAN BEHERA UZTEA.	20
31. ALDAKETAK:	21
32. ARDURAK	21
33. SAILKAPENAK	22



34.	ERREKLAMAZIOAK	22
35.	LASTERKARIAREN BIDE LIBURUA (formatu digitalean)	23
36.	AHAZTU EDO GALDUTAKO OBJEKTUAK	23



EHME, mendi lasterketa soilaz gain, bere oinarrian beste helburu batzuk ere txertatuta dituen kirol ekimena da, Euskal Selektzioen ofizialtasuna, Mendialdea-Aralar eskualdearen garapena (Araitz-Betelu, Larraun-Lekunberri eta Leitza-Areso), ingurumenaren babesean eragitea edo euskararen sustapena, besteak beste. Hori guztia aurrera eraman ahal izateko auzolana behar beharrezkoa dela sinesten dugu eta horretan oinarritzen dugu gure eguneroko lana.

2026. urteko ekitaldiak bi modalitate desberdin izanen ditu:

- **EHME lasterketa (traila):** 2026. urtean XII. edizioa izanen dugu. Lasterketa honek 67 kilometro eta 7.200 metroko desnibel metatua izanen ditu Mendialdea-Aralar inguru menditsu ikusgarrian barrena (Araitz-Betelu, Larraun-Lekunberri eta Leitza-Areso). Hasiera eta helmuga puntuak Leitzan izanen dira.
- **EHME errelebo-lasterketa:** 2026. urtean VI. edizioa izanen dugu. EH Mendi Erronka lasterketaren ibilbide bera izanen du, baina emakumeen parte-hartzea sustatzeko asmoz bikoteka errelebotan egin ahal izanen da. Bikoteko kideetako batek, gutxienez, emakumea izan behar du. Lehenengo lasterkariak irteera lekutik Putzuzarreko anoa-gunerainoko zatia egingen du. Putzuzarren erreleboa eman beharko dio bikotekideari eta bigarren horrek Putzuzarretik Leitzako helmugaraino geratzen den zatia egingen du.



1. ANTOLAKUNTZA:

Euskal Herria Mendi Erronkaren antolatzailea Euskal Herria Mendi Erronka Kirol Elkartea da (Kirol Elkarteen Erregistroko G71234975 zenbakia).

2. EGUNA ETA LEKUA:

Lasterketa 2026ko ekainaren 6an egingen da. **Traila eta errelebo lasterketa goizeko 8:00etan** hasiko dira, Leitzako plazatik. Lasterkariak antolakuntzak emandako argibideak jarraitu beharko dituzte. Lasterketa honetan parte hartzeak araudi hau eta antolakuntzak www.ehmendierronka.eus helbidean argitaratutako informazioa onartzea dakar berarekin.

3. IBILBIDEA:

3.1. TRAILA:

Lasterketa honek 67 kilometro eta 7.200 metroko desnibela du, eta Leitzan hasi eta bukatzen da, Araitz-Betelu, Larraun eta Lekunberritik pasatu ondoren. Honatx zehatzago:

- Leitza
- Guratz
- Gorriti
- Arribe
- Gaintza
- Irumugarrieta
- Albi
- Artxueta
- Iribasko Iturburua
- Alli
- Lekunberri
- Iontza
- Ireber
- Kornieta
- Leitza

3.2. ERRELEBOAK:

Lehenengo lasterkaria Leitzatik aterako da, 32,8 km egingen ditu Putzuzarreraino, eta bertan erreleboa emango dio bere bikotekideari. Bigarren lasterkariak Putzuzarretik Leitzarainoko ibilbidea egingen du, 34,2 km. Lehenengo lasterkariak nahitaez Putzuzarren utzi beharko du lasterketa, hots, ezinen du bigarren zatia egin. Hala ere, helmugarako 300 m falta direnean, errelebo-bikoteko bigarren kide hori lasterketan sar daiteke berriz, helmugan biak elkarrekin sartzeko. Honatx zehatzago:



Lehenengo lasterkariak:

- Leitza
- Guratz
- Gorriti
- Arribe
- Gaintza
- Irumugarrieta
- Albi
- Artxueta
- Putzuzar

Bigarren lasterkariak:

- Putzuzar
- Iribasko Iturburua
- Alli
- Lekunberri
- Iontza
- Ireber
- Kornieta
- Leitza

Neurketak ez daude homologatuta.

4. PARTE-HARTZEA:

Araudi honek dioena betez gero, proba egunean 18 urtetik gorako kirolari orok parte hartu ahal izanen du, federatua izan edo ez. Antolakuntzak proba egin aurretik azterketa mediku bat egitea gomendatzen die parte-hartzaile guztiei, eta, halaber, parte-hartzaile guztiek kirol-jarduerak dakarren arriskua onartuko dute.

Gomendagarria izanen da korrikalariak honako agiriak antolakuntzari helaraztea: Mediku- eta gaitasun- txostena, eta atsedeen-egoeran egindako 12 deribaziotako elektrokardiograma. Agiri hauek lasterketaren web orrian daude, bertatik deskargatzeko. Dokumentu horiek info@ehmendierronka.eus e-mailera bidali beharko dira.

Dokumentu horiek proba egin baino urtebete lehenagotik eginak, eta gainera, indarraldian egon behar dute. Bi dokumentuek mediku batek sinatua eta zigilatua egon beharko dute. Bertan jarriko ditu izen-abizenak eta elkargokide zenbakia.

Antolatzaileek emandako mediku-txostenaren ereduaz gain, 2026rako beste lasterketaren batean erabilitako bestelako ziurtagiriak ere onartuko dira.



5. MATERIALA:

Parte-hartzaile bakoitzak, bere segurtasuna bermatuta egon dadin, ezinbestekoa izanen den materiala eraman beharko du. Horrez gain, derrigorrezkoa izanen da lasterkariak ibilbide osoan zehar ondorengo materiala berarekin eramatea.

5.1 Derrigorrezko materiala:

- Motxila edo antzekoa.
- Litro bateko ahalmena duen ur erreserba (lasterketan)
- Mendian eguraldi txarrari aurre egiteko gai den jaka iragazgaitza kaputxarekin. Jakak ez ditu iragazgaitzak ez diren atalak edukiko, soilik ekoizleak aurreikusitako aireztatzeko gunek (besapeak eta bizkarraldea), iragazgaiztasuna nabarmen gutxitzen dutenak ez badira behintzat.
- Galtza edo lasterrerako malla luzeak (belaunetik behera). Elastiko eta galtzerdi luzeen konbinazioa ere onartuko da hanka osoa estaltzen badute.
- Txapela/bisera/buffa edo bandana.
- Biziraupen-manta bat (gutxienez 1,2 m X 1,2 m)
- 15 cl-ko gutxieneko edalontzia edo ontzia (ez dago edalontzirik anoa-guneetan).
- Telefono mugikorra (gogoratu bateria kargatzeaz). Mugikorra erabilgarri egon behar da.

Derrigorrezkoa izanen da ezinbesteko material guztia dortsala hartzerakoan erakustea eta lasterketa osoan zehar soinean eramatea. Materialaren kontrola lasterkari guztiei ibilbideko edozein puntutan egin ahal izanen zaie, ausaz edo zoriz, irteera eta helmuga puntuak barne.

Derrigorrezkoak diren elementuetako bat ez eramateak lasterkariaren bat-bateko kanporatzea eraginen du. Zalantzazko kasuetan, lasterketan kokatutako edozein kontroletan bertako arduradunak izanen du azken hitza.

5.2 Material guztiz gomendagarria:

- NAN/pasaportea/ENA
- Eskularruak
- Hotz iragarpenei aurre egiteko arropa
- Eguzkitako betaurrekoak
- Eguzkitako krema

5.3 Aholkatutako materiala:

- Bastoi teleskopikoak
- Iparrorratza
- Baselina



6. MAILAK:

- Emakumezkoen eta gizonezkoen orokorra
- Emakumezko eta gizonezko Kilometro bertikala
- Emakumezko eta gizonezko eskualdeko EHME
- EHME Erreleboak
- Eskualdeko erreleboak

7. TXAPELKETAK

- BANAKAKO EHME TXAPELKETA

- Parte-hartzaile guztientzat da.
- Emakumezkoen eta gizonezkoen txapelketa

- KM BERTIKALA EHME TXAPELKETA

- Parte-hartzaile guztientzat da.
- Emakumezkoen eta gizonezkoen txapelketa
- Gaintza – Irumugarrieta zatian eginen da.
- EHME probako ibilbide osoa bukatu beharko da, eta gehienezko denbora 12 ordukoa izanen da.

- ESKUALDEKO EHME TXAPELKETA

- Parte hartzaileak: Leitza, Areso, Araitx (Arribe, Atallu, Intza, Gaintza, Uztegi eta Azkarate), Betelu, Larraun (Albiasu, Aldatz, Alli, Arruitz, Astiz, Azpirotz-Lezaeta, Baraibar, Errazkin, Etxarri, Gorriti, Iribas, Madotz, Mugiro, Oderitz eta Uitz) edo Lekunberrin erroldatutako kirolarientzat izanen da soil-soilik.
- Emakumezkoen eta gizonezkoen txapelketa

- ERRELEBO-LASTERKETAKO EHME TXAPELKETA

- Bikoteka izena eman dutenentzat.
- Bikotekide bat gutxienez emakumezkoa izanen da, nahitaez.
- Leitza-Putzuzar eta Putzuzar-Leitza zatiak izanen ditu.
- Kilometro bertikalean ez du puntuatuko.
- Lehenengo zatia egitea erabakitzen duen lasterkariak bikotekideari Putzuzarren erreleboa emateko 15:00ak baino lehen iritsi beharko du bertara. Lehendabiziko kidea iristen ez bada, bigarren parte-hartzaileak bere zatia egiteko aukera izanen du, eta horretarako antolakuntzak finkatutako orduan atera beharko du. Nolanahi ere, bikote hori ez da lasterketako sailkapenean sartuko.
- Puntuatzeko helmugan sartzeko gehienezko denbora: 13 ordu

- ESKUALDEKO ERRELEBO-LASTERKETAKO TXAPELKETA



- Bikoteka izena eman dutenentzat.
- Bikotea osatzen duten bi kideek, Leitza, Areso, Aritz (Arribe, Atallu, Intza, Gaintza, Uztegi eta Azkarate), Betelu, Larraun (Albiasu, Aldatz, Alli, Arruitz, Astiz, Azpirotz-Lezaeta, Baraibar, Errazkin, Etxarri, Gorriti, Iribas, Madotz, Mugiro, Oderitz eta Uitz) edo Lekunberrin erroldatuta egon beharko dute.
- Bikotekide bat, gutxienez, emakumezkoa izanen da, nahitaez.
- Leitza-Putzuzar eta Putzuzar-Leitza zatiak izanen ditu.
- Kilometro bertikalean ez du puntuatuko.
- Lehenengo zatia egitea erabakitzen duen lasterkariak bikotekideari Putzuzarren erreleboa emateko 15:00ak baino lehen iritsi beharko du bertara. Lehendabiziko kidea iristen ez bada, bigarren parte-hartzaileak bere zatia egiteko aukera izanen du, eta horretarako antolakuntzak finkatutako orduan atera beharko du. Nolanahi ere, bikote hori ez da lasterketako sailkapenean sartuko.
- Puntuatzeko helmugan sartzeko gehienezko denbora 13 ordukoa izango da.

8. SARIAK:

Saria jaso ahal izateko antolakuntzak honakoa egiaztatuko du:

Helmugara sartzerakoan lasterketan norberaren segurtasuna bermatzeko derrigorrezkoa izan den materiala edukitzea.

Materiala ez edukitzeak lasterketatik kanporatua izatea ekarriko du, eta, ondorioz, lasterkariak ez du saririk jasoko.

Sailkapenaren arabera, sariak honako hauek izanen dira.

BANAKAKO EHME TXAPELKETA

- **Lehendabiziko emakumezkoari eta lehendabiziko gizonezkoari:**
Txapela, garaikurra, 600 € eskudirutan eta bertako produktuekin osatutako saskia.
- **Bigarren emakumezkoari eta bigarren gizonezkoari:**
Garaikurra eta 400 € eskudirutan.
- **Hirugarren emakumezkoari eta hirugarren gizonezkoari:**
Garaikurra eta 200 € eskudirutan.

KM BERTIKALA EHME TXAPELKETA



- **Lehendabiziko emakumezkoari eta lehendabiziko gizonezkoari:**

Garaikurra, Lopenea landa ostatuan bi pertsonentzako gau bateko egonaldia (loa eta gosaria. Erabiltzeko epea: 3 hilabete) eta bertako produktuekin osatutako saskia.

- **Bigarren emakumezkoari eta bigarren gizonezkoari:**

Garaikurra.

- **Hirugarren emakumezkoari eta hirugarren gizonezkoari:**

Garaikurra.

ESKUALDEKO EHME TXAPELKETA

- **Lehendabizi emakumezkoari eta lehendabiziko gizonezkoari:**

Garaikurra, oparia eta bi pertsonentzako otordua.

ERRELEBO-LASTERKETAKO EHME TXAPELKETA

- **Lehendabizi sailkatutako bikoteari:** Garaikurra, bertako produktuen saskia, Peru-Harrirako (Iñaki Perurenak harriari eskainitako museoa) hamar sarrera eta bi pertsonentzako Perurena harategiko lotea. Epea: 2026an gozatu behar da.

ESKUALDEKO ERRELEBO-LASTERKETAKO TXAPELKETA

- **Eskualdeko lehendabiziko sailkatutako bikoteari:** Garaikurra, 2 otordu eta bertako produktuekin osatutako saskia.

Ezinbestekoa izanen da antolakuntzak aurreikusitako orduan lasterketako podiuma osatzen duten lasterkariak sari-banaketa egotea. Horrela ez bada, antolakuntzaren baimenarekin izan ezean, lasterkaria saririk gabe geldituko da.

9. IZEN-EMATEA:

9.1. TRAILA: Gehienez **480** parte-hartzaile izanen dira.

9.2. ERRELEBOAK: Gehienez **70** bikote izanen dira.

Izen-ematearen ordenari zorrotz jarraituko zaio.

Izen-emateak internet bidez egingen dira lasterketaren webgune ofizialean <https://www.ehmendierronka.eus>, kreditu txartelaren bidez, 2025eko azaroaren 15ean 10:00etatik aurrera. Izen-ematea egin eta 72 ordura ordainketa egin ez bada, ezeztatutzat emanen da izen-emate hori.

Langabetu, ikasle edo ezgaitasun funtzionalen bat justifikatzen duten parte-hartzaileei %10eko beherapena egingen zaie. Egoera hori behar den dokumentazioarekin egiaztatu beharko da (degaitasun ziurtagiria, egiten ari den ikasketen matrikulatze-ziurtagiria [indarrean den ikasturtekoa izan behar du], langabezi egoeran egotearen ziurtagiria...).



Ziurtagiria aurkeztu eta antolakuntzak ontzat emandakoan izen ematearen %10 itzuliko zaio lasterkariari.

• **Trailerako prezioak:**

IZEN-EMATE DATA	PREZIOA	
	Federatuak (betiere mendi-lasterketak barne hartzen duen modalitatearen batean)	Gainerakoak
2025/11/15etik 2026/03/31 arte	66 €	71 €
2026/04/01etik 2026/05/26 arte	76 €	81 €

• **Erreleborako prezioak:**

IZEN-EMATE DATA	PREZIOA BIKOTeko
2025/11/15etik 2026/03/31 arte	81 €
2026/04/01etik 2026/05/26 arte	90 €

- Izen-emate ororen baliogabetzea e-posta info@ehmendierronka.eus bidez egin behar da. Izen-ematearen erreferentzia-zenbakia adierazi beharko da.
- Lasterkari kopurua betetzen bada, itxarote-zerrenda irekiko da. Onartutakoen zerrendan baxarik gertatuz gero, hutsuneak betetzeko itxaron-zerrenda erabiliko da eta EHMEko boluntario izan den orok lehentasuna izanen du.
- Lasterketarako plaza egonez gero, antolakuntza lasterkariarekin jarriko da harremanetan plaza eskaintzeko. Harek 72 orduko epea izango du izen-ematea formalizatzeko. Epe horren barruan izen-ematea formalizatuko ez balu, plaza galduko du eta itxarote-zerrendan hurrengo lasterkaria denari deituko diote.
- Modalitate bateko lasterkari kopurua betetzen ez bada, dortsal kopuru hori beste modalitateari gehituko zaio, beti ere, gehienez 600 lasterkari aterako dira bi modalitateak batuz.
- Izen-emateak honakoa bermatzen du:



- Lasterketan parte hartzea.
 - Erantzun zibileko aseguru.
 - Istripu-aseguru.
 - Lasterketan osasun-laguntza.
 - Anoa-guneak.
 - Txip bidezko kronometraje-sistema.
 - Lasterkariaren poltsa.
 - Dutzak. Lasterkariak udal kiroldegian egokitutako dutxa eta atsedeen-gunea erabili ahalko dituzte. Bakoitzak antolakuntzak emandako eskumuturrekoa jarrita eta dutxarako beharrezko guztiak eraman beharko ditu (xaboia, toalla...).
 - Antolakuntzak adierazitako puntura, hots, Albira, lasterkariaren materiala garraiatzeko aukera (Bizi-puntuko kontsigna-zerbitzuara)
 - Lasterkariaren bide-liburua. (formatu elektronikoan).
 - Doako garraio-zerbitzua, erretiratuak Leitzara ekartzeko, antolakuntzak zehaztutako puntuetatik.
 - Proba amaierako otordua.
- Antolakuntzak bere erabilerarako 10 dortsal gordeko ditu (trailerako) eta 10 dortsal erreleboetarako.
 - Antolakuntzak eskubidea izanen du parte-hartzaileen datuak (izen-abizenak, jatorria, kategoria, dortsal-zenbakia, emaitzak...) nahiz proban zehar egindako argazkiak eta hartutako irudiak hedabideetan eta Interneten argitaratzeko; beraz, proban erregistratzeak berekin dakar berariaz eta erreserbarik gabe oniritzia ematea datu horiek antolatzaileak erabiltzeari, aurka egiteko eskubideari kalterik egin gabe. Parte-hartzaileei dagozkien datu eta zerrenda guztiak publikoki kontsultatu ahal izanen dira izena ematen den unetik beretik.
 - Erabiltzaileak izen-ematea hirugarren pertsona baten izenean egitekotan, bai plataformaren bidez, bai horren bitartez kudeatutako kirol-proben bidez, pertsona horrek ziurtatzen du interesdunaren berariazko aurretiko baimena duela lege-baldintza hauetan jasotakoaren arabera.
 - Lasterketa egunean ez da dortsal aldaketarik onartuko ezta dortsala beste bati ematea ere, antolakuntzaren baimenik izan ezean. Horrez gain, ez dira modalitate aldaketak baimenduko.

10. IZEN-EMATEAREN BALIOGABETZEAREN BERMEA

Pertsona oro, izen-ematea egiten duen unean, baliogabetze berme batera harpidetu ahal izanen da, horretarako izen emate bakoitzeko 10 euro ordainduz. Zenbateko hori izen-ematearen kostuari gehituko zaio. Aseguru inskripzioa egiten den unean kontratatu beharko da, bai zuzenean bai itxaron-zerrendan, eta aukera hori ezinen da aldatu inskripzioa egin ondoren.



Bermeak izen-emateak eragindako gastuaren diru-itzulketarako aukera ematen du. Izen-emate data itxi ondoren, EZ da inongo diru itzulketarik egingen arrazoia edozein dela ere, ondorengo kasu hauetako egoera bat eman ezean:

- Lasterkariaren istripu, gaixotasun larri edo heriotza.
- Senar/emazte, bikote edo lehen mailako familia lotura duen norbait larri gaixotuta ospitalizatzea edo hiltzea.

Lasterkariaren istripu edo gaixotasun larri baten kasuan, beharrezkoa da proba ez egitea aholkatzen duen mediku-txostena aurkeztea. Ziurtagiria mediku batek sinatu eta zigilatu beharko du, bere izena eta elkargokide-zenbakia adieraziz. Txosten hori, e-mail bidez (info@ehmendierronka.eus) helbidera bidali beharko da.

Kalte-ordainketa baldintzak: diru-itzulketa eskaera guztiak dagokien osasun txostenarekin aurkeztu behar dira, eta beranduenera ere, 2026ko maiatzaren 27rako.

11. IZEN-EMATEAREN BALIOGABETZEA

Izen-emate ororen baliogabetzea e-posta (info@ehmendierronka.eus) bidez egin behar da. Baliogabetzea 10. artikuluan deskribatutako arrazoren batengatik egin bada, eta izen-emate unean harpidetu bada, lasterkariak izen-emate baliogabetzearen bermea erabili ahal izanen du, antolakuntzari baliogabetzea eta hori egiaztatzen duen txostena helaraziz. Kasu horretan, lasterkariari izen-ematearen kostu guztia itzuliko zaio, baina ez izen-emate baliogabetzearen 10 euroko bermea.

Izena emandako lasterkari batek berme hori aukeratu ez badu, edo kontratatuta izan arren 10. artikuluan zehazten diren baldintzak betetzen ez baditu, diru-itzulketaren zenbatekoa honela egingen da.

- 2026ko apirilaren 17ko 23:59ak bitarteko epean, % 100 itzuliko zaio.
- 2026ko apirilaren 18ko 00:00etatik aurrera ez da inongo diru itzulketarik egingen arrazoia edozein dela ere.

12. SEINALEZTAPENA:

Ibilbidea probako karteekin, banderatxoekin eta zintarekin behar bezala markatuta eta ikusteko moduan egonen da. Seinaleztatutako bidea nahitaez jarraitu behar da, moztu gabe, bidea mozteak ingurumenaren higadura eta degradazioa eragin baititzake.

13. ANOA-GUNEA:



Helmugakoaz gain, bederatzi anoa-gune izanen dira. Gune horietan produktu energetikoak eta hidratatzaileak eskainiko dira.

ANOA-GUNEAK	KM	ANOA MOTA
Pagozelai	9,6	Likidoa
Gaintza	18,2	Osoa
Unagako Putzua	24,8	Likidoa
Albi	28,5	Osoa
Putzuzar	32,8	Likidoa
Iribasko iturburura	39,7	Likidoa
Aralar kanpina	45,5	Osoa
Iontza	54,5	Likidoa
Idiazabal	59,5	Osoa
Jaundegiko borda	64,6	Likidoa
Leitza	67	Osoa

Anoa-postu bakoitzean zenbait zakarrontzi egonen dira: ezinbestekoa izanen da horiek erabiltzea eta zaborra sailkatzea.

14. KANPOKO LAGUNTZA:

Lasterketan zehar, lasterkarien edo kanpokoen laguntza eta anoa oro guztiz debekatuta dago, antolatzaileek horretarako ezarritako tokietan izan ezik (anoa-guneak).

Ez da erbi lanik onartuko.



15. IGAROTZE-KONTROLAK:

Antolatzaileek hainbat igarotze-kontrol jarriko dituzte, eta horietatik pasatzea derrigorrezkoa izanen da. Igarotze-kontrolak erraz ikusteko moduan adieraziak egonen dira. Horietatik pasatzen ez dena kanporatua izanen da.

Antolakuntzak emandako txip batek ziurtatuko du lasterkaria bertatik igaro dela. Parte-hartzaile guztiek dortsala ikusgai eraman beharko dute lasterketa osoan zehar.

Igarotze-kontroletan antolakuntzako kideak egonen dira.

Igarotze-kontrolak honakoak izanen dira:

- Gaintza.
- Irumugarrieta.
- Albi
- Putzuzar.
- Lekunberri
- Ireber
- Leitza

16. ERRELEBOA EMATEKO LEKUA ETA ORDUTEGI MUGAK

Lehenengo lasterkariak Leitza-Putzuzar zatia egingen du. Horretarako 7 ordu izanen ditu, eta 15:00etarako Putzuzarrera iritsi beharko du.

Bigarren lasterkariak Putzuzar-Leitza zatia egingen du. Horretarako 6 ordu izanen ditu, eta 21:00etarako Leitzako plazara iritsi beharko du. Lehenengo zatia egiten duen lasterkariak, ezinen du, inolaz ere, bigarren zatian jarraitu.

Ibilbidea osatu eta helmugara iristeko gehienezko muga 13 ordukoa da.

Lehenengo zatia egitea erabakitzen duen lasterkariak bikotekideari Putzuzarren erreleboa emateko 15:00ak baino lehen iritsi beharko du bertara. Lehendabiziko kidea iristen ez bada, bigarren parte-hartzaileak bere zatia egiteko aukera izanen du, eta horretarako antolakuntzak finkatutako orduan atera beharko du. Nolanahi ere, bikote hori ez da lasterketako sailkapenean sartuko.

17. LASTERKETA UZTEKO LEKUAK

Proba bertan behera uzten duten eta lesionaturik ez dauden lasterkariek Gaintza, Albi, Putzuzar (erreleboak soilik) eta Lekunberriko anoa-guneak izanen dituzte lasterketa uzteko lekuak, beraz, beren kabuz eta ahalik eta azkarren leku horietara joan beharko dute garraiatuak izan daitezen.



18. KANPORATZE-PUNTUAK ETA ORDUTEGI-MUGAK

- **Trailean:** helmugan sartzeko gehieneko denbora 13 ordukoa izanen da:

LEKUA	ORDUTEGI MUGAK	KM
Gaintza	11:15	18,2
Albi	14:00	28,5
Lekunberri	16:30	45,5
Lekunberritik irteteko	16:50	45,5

- **Erreleboak:** helmugan sartzeko gehieneko denbora 13 ordukoa izanen da:

LEKUA	ORDUTEGI MUGAK	KM
Gaintza	11:15	18,2
Putzuzar	15:00	32,8
Lekunberri	16:30	45,5
Lekunberritik irteteko	16:50	45,5

- Antolakuntzako arduradunek, kanporatze-puntuetan aurrez ezarritako denbora aurreikuspenak betetzen ez dituzten kirolariak probatik kanpo utziko dituzte eta helmugara garraiatuko dituzte. Halaber, lasterkaria honako arrazoi hauengatik ere kanporatua izan daiteke:
 - Araudia ez betetzeagatik.
 - Lasterketan izena eman gabeko pertsona batek edo animalia batek lagunduta joateagatik (erbi lanaz baliatzea), bai ibilbidean, bai baimendutako guneeetatik kanpo.
 - Markatutako ibilbide osoa ez osatzeagatik.
 - Dortsala ikusteko moduan ez eramateagatik.
 - Antolatzaileen aholkuei kasurik ez egiteagatik.
 - Beste lasterkariei errespetu falta erakusteagatik.
 - Anoa-guneetan zaborra ez sailkatzeagatik edo lurrean uzteagatik.



- Ingurumena ez errespetatzeagatik: zabor eta hondakinak ibilbidean zehar uztea edo botatzea.
- Derrigorrezko materiala ez eramateagatik.
- Desgaitasun bat duten lasterkarien kasuan ordutegi muga horiek malguagoak izan daitezke, baldin eta antolakuntzari adierazten bazaio eta segurtasuna bermatzeko aukera baldin badago.
- Eguraldi txarragatik edo segurtasun arrazoiengatik, antolakuntzak proba gelditzeko, ibilbidea aldatzeko edo ordutegi-mugak aldatzeko eskubide osoa izanen du.

Ezarritako ordutegi-mugen aldaketa gertatuz gero, ordutegi-muga berri horietara iritsi ezin daitezkeen lasterkari guztiak lasterketaz kanpo geldituko dira eta helmugara garraiatuak izanen dira.

19. KRONOMETRAJEA:

- Lasterketaren kronometrajea txiparen bidez egingen da. Irabazleek, behin-behineko sailkapenak jarri ondoren, 30 minutu izanen dituzte erreklamazioak egiteko. Zerrenda hori kronometraje gunean egonen da arratsaldeko 19:00etarako. Arratsaldeko 19:30erako behin betiko saridunen zerrenda argitaratuko da. Parte-hartzaileek sailkapenak argitaratu eta 24 ordu izanen dituzte erreklamazioak egiteko. Denbora tarte hori igaro ondoren, erreklamaziorik ez badago, sailkapenak behin betikoak izanen dira.
- Markak egiaztatzea helburu hartuta, probaren sailkapenak eperik gabe mantenduko dira, eta antolatzailearen webgunean kontsultatu ahal izanen dira, ezeztatzeko eskubideari kalterik egin gabe.

20. DORTSALEN BANAKETA:

Dortsal bakoitza, neurtzeko sistemarekin batera, bakarka banatuko zaio lasterkari bakoitzari. Horretarako, indarrean dagoen, argazkia duen eta haren nortasuna erakusten duen dokumentu ofizial bat aurkeztu beharko du (formatu digitalean ere balio du). Ezingo da dortsala erretiratu derrigorrezko materiala aurkeztu gabe.

Dortsalen banaketa Leitzako plazan egingen da, 2026ko ekainaren 5ean, ostirala, 17:30etik 20:00etara (derrigorrezko materiala auzeratu beharko da) , eta, probako egun berean, 06:00etatik 07:15era, leku berean (derrigorrezko materiala aurkeztu beharko da).

Dortsalaren atzealdean larrialdi kasuetan zein telefono zenbakitara deitu behar duen adieraziko zaio (dortsalean inprimatua egonen da). Korrikalariak ezin badu zenbaki horretara deitu, bere telefono-konpainia estaldurarik gabe dagoelako, larrialdietako 112 zenbakira deitzea gomendatzen da (doakoa da eta estaldurarik gabeko kasuetan, normalean, erabilgarri egoten da). Beste korrikalarietako errespetua eta elkertasuna lehenetsiko dira horrelako kasuetan, eta estuasunean dagoenari laguntza emanen zaio.



Larrialdi kasuetarako edo lasterkariak konortea galtzen duenerako larrialdi zerbitzuetako langileentzat garrantzitsuak izan litezkeen datu esanguratsuenak idazteko ere hutsune bat egonen da (odol taldea, RH edo gaixotasun aipagarriren bat, alergia, hies-a, epilepsia, diabetesa edo gaixotasun zeliakoa kasu).

Lasterkaria identifikatutakoan, poltsa, dortsala eta txipa ematen dizkion antolakuntzako boluntarioak erabilera bakarreko identifikaziorako eskumuturrekoa jarriko dio unean bertan lasterkariari. Froga osoan zehar eskumuturrekoa eraman beharko du, hori izanen baita, dortsalarekin batera, antolakuntzak lasterkarientzat egokitutako zerbitzu guztietara sarrera ziurtatuko dioena (irteera puntua, anoa-guneak, erretiratuentzako garraioa, osasun zerbitzuak, lasterkariaren poltsa jasotzea, dutxa-gunea, eta abar.).

Partaideek uneoro antolakuntzak emandako dortsala eraman beharko dute. Dortsala bular edo sabel aldean eraman behar da, erraz ikusteko moduan eta probak irauten duen denbora guztian. Dorsalak ezin dira tolestu, estali edo aldatu.

21. KONTSIGNA-ZERBITZUA:

Kontsigna zerbitzua larunbatean soilik eskeiniko da, goizeko 6:00etatik 7:45etara. Bi kontsigna-zerbitzu eskainiko dira:

1. **LEITZA kontsigna:** Antolatzaileek kontsigna-zerbitzua eskainiko diete parte-hartzaile guztiei irteera/helmuga puntuan. Poltsa uzteko Kontsigna-zerbitzua Aurrera Kirol Elkartean egonen da eta poltsa jasotzeko kontsigna-zerbitzua Leitzako kiroldegian.
2. **ALBI kontsigna:** Albin kokatua egonen da. Hala nahi duen korrikalariak, lasterketako egunean (lasterketa hasi aurretik), Leitzako Herri Aretoan poltsa utzi dezake, antolakuntzak Albira eraman dezan. Ondoren antolakuntzak Albin utzitako poltsak Leitzako kiroldegira eramanez ditu. Zerbitzu hau erreleboetakoek ezingo dute erabili. Azken lasterkaria Albitik pasa ondoren, ekarriko dira leitzako kiroldegira.
 - Bastoiak ezin dira poltsa horietan erabili.
 - Poltsen edukia ez da egiaztatuko, ondorioz, ez da erreklamaziorik onartuko. Balio handiko objekturik ez sartzea aholkatzen da.
 - Poltsa identifikatzeko etiketa, dortsalarekin batera jasoko da.
 - Poltsak identifikatzeko dorsal zenbakia erabiliko da; hori dela eta, poltsa jasotzerkoan dortsala erakutsi beharko da.

22. INGURUMENA:

Lasterketa, ia oso-osorik, natura guneko zoragarri batean zehar igaroko da. Hori dela eta, ingurua babestea nahitaezkoa izanen da eta debekatuta egonen da edozer gauza lurrera botatzea.



Horretarako, zaborra biltzeko ontziak jarriko dira anoa-gune amaiera guztietan. Anoa-guneetan, antolatzaileek ezarritako zaborraren sailkapena errespetatzea nahitaezkoa izanen da.

Materialaren kontrola lasterkari guztiei ibilbideko edozein puntutan egin ahal izanen zaie, ausaz edo zoriz, irteera eta helmuga puntuak barne.

Arau hau hausten duena kanporatua izanen da.

23. OSASUN-ZERBITZUA:

- Antolatzaileek Larrialditarako osasun-zerbitzua jarriko dute ibilbideko lekuri estrategikoenetan. Halaber, helmugan dutxa, garbiketa eta lehen mailako zerbitzu medikua eskainiko dituzte, horren beharrean aurkitzen diren parte-hartzaileentzat.
- Antolakuntzak kirol-arriskuetaarako aseguru bat egin du parte-hartzaile guztientzat; beraz, izena ematen duenak oniritzia ematen dio antolatzaileei beharrezkoak diren datuak aseguru-etxeari uzteko, proban zehar ezbeharren bat gertatuz gero, laguntza bermatuta egon dadin.

24. SEGURTASUNA:

Antolatzaileek, egoerak hala eskatuta, lasterketaren ibilbidea aldatzeko eta dagozkion gainerako aldaketak egiteko eskubidea daukate, eta baita bertan behera uzteko ere, eguraldiak hala eskatzen badu edo arrazoi nagusi batengatik, lasterketa-batzordearen adostasunarekin.

Lasterketa ixteko ardura duen erratz-taldeak partaide guztiak igaro direla egiaztatuko du.

Lasterkarien istripu aseguruak (Lasterketa edo federazioko aseguruak) lasterkariak lasterketan izandako lesioa artatu ahal izateko, lasterketa egunean sorospen zerbitzuak artatua izan dela ziurtatu beharko du lasterkariak.

25. LAGUNTZA EZBEHARRETAN:

Parte-hartzaileak laguntza beharrean dauden parte-hartzaileei laguntzera behartuta daude, eta baita kontroletan gorabeheren berri ematera ere.

26. ERANTZUKIZUNA:

Antolatzaileek beren gain hartuko dituzte ibilbidean zehar gertatzen diren istripu guztiak, baina lasterkariaren erruagatik edo utzikieragatik gertatu bada istripua, antolatzaileek ez dute beren gain hartuko. Kasu hauetan, parte-hartzaileak beren buruari edo besteei egindako kalte guztien erantzule izanen dira.



27. IRUDI ESKUBIDEAK:

Partaide orok antolatzaileei eta beren babesleei lasterketaren inguruan egindako argazki edo hartutako irudiak askatasun osoz erabili eta argitaratzeko baimena ematen diete, epe mugarik gabe.

28. LASTERKETA BERTAN BEHERA UZTEA:

Lesio edo istripuren batengatik ez bada, lasterkariak ez luke proba bertan behera utzi behar igarotze-kontroletatik kanpo. Proba bertan behera igarotze-kontrola baino lehen uztea erabaki duenak, proba ixteaz arduratzen direnei edo antolakuntzakoei jakinarazi beharko die, haiek txipa desaktibatu eta Leitzara ekartzeko.

Lasterkariak dortsala gordeko du antolakuntzak eskaintzen dituen zerbitzuei (garraioa, dutzak, helmugako anoa-gunea...) etekina ateratzeko.

Lasterketa derrigor bertan behera uztea. Antolakuntzak aldi baterako gelditzera edo lasterketa bertan behera uztera behar dezake lasterkaria, egoerak bere osasun fisikoa edo segurtasuna arriskuan jartzen baditu.

Osasun-zerbitzura jotzen duten lasterkariak haien juzkuaren eta balorazioaren esku geratzen dira. Ondorioz, haien erabakiak onartu beharko dituzte. Osasun-zerbitzuek edozein kasutan erabaki hauek hartu ahal izanen dituzte:

- Lasterketa jarraitzeko gai ez den edozein lasterkari kanporatzea (dortsala desaktibatuz).
- Arriskuan ikusten duten edozein lasterkari ebakatu egokien iruditzen zaien baliabidearen bitartez.
- Edozein lasterkari osasun-zentro batera eraman, haren egoerak egokiena hori dela erakusten badu.

Osasun-zentro batera eramanez gero, lasterkaria arduratuko da itzuleraz.

Istripu edo lesioagatik oinez kontrol-guneetara iristea ezinezkoa bada eta ebakuazioa beharrezkoa izanez gero, lasterkariak antolakuntzarekin harremanetan jarri beharko du, salbamendu-zerbitzua martxan jartzeko. Lasterkari bakoitzari, kasu horietan, zein telefono zenbakitara deitu behar duen jakinaraziko zaio (dortsalean inprimatuta egonen da).

Lasterkariaren telefono-konpainiaren estaldura ezagatik zenbaki horiek erabili ezin diren kasuan, doako larrialdietako 112 zenbakia erabiltzea proba daiteke. Beste lasterkarien errespetua eta elkartasuna erabakigarriak izanen dira horrelako kasuetan.

Lasterkariaren itzulera kontrol-guneko arduradunaren eta honako arauen arabera erabakiko da:



- Anoa-gunean edo segurtasun-esparruan proba bertan behera utzen duten eta lesionaturik ez dauden lasterkariak goian aipatutako puntu horietara joan beharko dute beren kabuz eta ahalik eta azkarren.
- 4x4 ibilgailuen bidez bakarrik irits daitekeen postuetan, salbamendu zerbitzua behar ez den kasuetan, kontrol bakoitzeko arduradunak erabakiko du lasterkariaren itzulera-unea.
- Muturreko eguraldiaren ondorioz proba osorik edo tarte batean bertan behera utzi behar denean, antolakuntzak geldirik dauden lasterkarien itzulera ziurtatuko du, denbora tarterik ahalik eta laburrenean.

Proba edozein arrazoi dela medio bertan behera utzi duten eta itzulera puntuetara ez joatea erabaki duten lasterkariak, igarotze-kontrolako arduradunei erabakia jakinarazi gabe, ez dira jada antolakuntzaren kontrolpean egon.

29. IBILBIDE ALDAKETA:

Eguraldi txarrak hala behartuz gero, ordezkoko ibilbide bat egon da. Horren berri lasterkariari emanen zaio ahalik eta azkarren. Ibilbide aldaketaren erabakia irteera eman ondoren hartuko balitz, erabaki horren berri antolakuntzak egokien ikusten duen igarotze-kontrol batean emanen zaie partaideei.

Antolakuntzak lasterketaren oinarriak aldatzeko eta ustekabeko arrazoi garrantzitsuren bategatik proba bertan behera uzteko eskubidea izanen du.

Lasterketak bertan behera uzteko erabakia irteera-datarako 15 egun edo gehiago falta direla hartzen den kasuan, arrazoiak edozein direla ere, inskripzioan egindako ordainketaren itzulera partziala egingen da. Itzulera horren zenbatekoa antolakuntzak egindako gastu finkoei aurre egiteko behar duen diru kopuruaren araberakoa izanen da. Lasterketa bertan behera uzteko erabakia irteera-datarako 15 egun edo gutxiago falta direla hartzen den kasuan, edo lasterketa behin irten ondoren bertan behera gelditzen denean, ez da diru itzulerarik aurreikusten.

30. PROBA ATZERATZEA, ETETEA ETA BERTAN BEHERA UZTEA.

30.1.- Eguraldiaren baldintzak oso txarrak badira (ekaitza, elurra, lainoa...) eta lasterkarien segurtasuna bermatzerik ez badago lasterketa bertan behera utzi edo neutralizatu ahal izanen du EHME antolakuntzak.

Ahal den heinean lasterketa etetea saihestuko da, eta horretarako antolakuntzak ordezkoko ibilbideak aurreikusi ditu.

Ordezko ibilbideak erabili edo ez, eguraldiak baldintzatuko du. Beraz, lasterketa eten edo jarraitu EHME antolakuntzak erabakiko du.



30.2.- BERTAN BEHERA UZTEN BADA

Egoerak horrela eskatzen badu, proba amaitutzat eman ahalko da, ibilbidearen edozein puntutan.

Horrela eginez gero, sailkapenerako, azken kontrol guneko denborak hartuko dira aintzat.

30.3.- NEUTRALIZATZEN BADA

Neutralizatzeko unean lasterketa neutralizatu den tokitik edo kontroletik igaro den lasterkaririk balego:

- Beharra balego, lasterkari horiek antolakuntzak erabakitzen duen gunean neutralizatuko dira, eta azken kontrolera iritsi diren ordenaren arabera emango da amaitutzat proba.
- Helmugaraino kontrol gunerik ez balego, helmugara iristen direnen denborak hartuko dira sailkapenerako, eta horien atzetik, azken kontrol gunean hartutako denborak.

30.4.- Proba eteten bada edo neutralizatzen bada, eguraldiaren baldintzek hala eskatzen dutelako, eta ordeko ibilbideak ere baztertzen badira, ez dira itzuliko izen-emateen kuotak.

Hala ere, behin lasterketa abiatu ondoren, antolakuntzak lasterketa bertan behera uzten duenean, lasterketan zeuden lasterkari guztiei finisher oparia emanen zaie.

Bertan behera uztea lasterketa eguna baino lehenago erabakitzen bada, ondorengo taularen arabera egingen da diru itzulketa:

Bertan behera uzteko erabakia	Itzuli beharreko zenbatekoa (% izen-ematearen zenbatekoaren arabera)
2026/02/01—2026/03/09	% 100
2026/03/10—2026/04/10	% 60 + (Finisher oparia)
2026/04/11—2026/05/11	% 40 + (Finisher oparia)
2026/05/12—2026/06/06	*Finisher oparia

*Finisher opariaren bidalketa gastuak (bidalketa ziurtatua) lasterkariaren kontu izanen dira

31. ALDAKETAK:

Antolakuntzak edozein unetan araudi hau hobetu, zuzendu edo alda dezake. Izen-ematea egiteak partaidea araudi honekin ados dagoela adierazten du.



32. ARDURAK

Antolakuntzak ez du bere gain hartuko, antolakuntzak kontratatutako aseguruaren estalduratik harago, partaide, laguntzaile edo ikusleei gerta dakizkiekeen kalteen (galdu, lapurtu, puskatu...) ondorioz egindako erreklamazioen erantzukizunik.

EH mendi erronka proban izena eman duten guztiek beren borondatez eta norberaren arduraz parte hartzen dutela ulertzen dute. Horregatik, parte-hartzaileek eta beren oinordekoek, erantzukizun zibilari dagokionez, antolaketaz arduratzen diren erakundeak, laguntzaileak, babesleak zein beste partaideak ez salatzea eta kargu horietatik guztietatik libre uztea onartzen dute.

33. SAILKAPENAK

Behin-behineko sailkapenak partaideen eta jarraitzaileen eskura egonen dira lasterketak irauten duen bitartean. Antolakuntzak horretarako gune bat atonduko du, ahal den heinean lasterkariak kontrol-puntu ezberdinetan egindako denborak eta kokapena denbora errealean emateko.

Lasterketako behin-behineko emaitzak web-orrian agertuko dira lasterketa-egunaren biharamunean.

34. ERREKLAMAZIOAK

Erreklamazioak idatziz bakarrik aurkeztu ahal izanen zaizkio antolakuntzari. Erreklamazioak egiteko epea 24 ordukoa izanen da, behin-behineko sailkapenak lasterketaren web-orri ofizialean argitaratzen diren unetik kontatzen hasita. Erreklamazio horiek eta dagozkien erabakiak lasterketa amaitu eta gehienez bi hilabeteko epean aztertu eta jakinaraziko dira.

35. LASTERKARIAREN BIDE LIBURUA (formatu digitalean)

Lasterketaren aurreko astean lasterkari bakoitzari lasterkariaren eskuliburua bidaliko zaio e-postaz. Eskuliburu horretan lasterketari buruzko informazio baliagarria aurkitu ahal izanen da: igarotze-kontroletako mugak, anoa-guneak, osasun-zerbitzua, eta abar.

36. AHAZTU EDO GALDUTAKO OBJEKTUAK

Galdu edo ahaztutako objektuak: 2026ko EHME lasterketa bukatu ondoren, antolakuntzak hamabost egunez gordeko ditu lasterketan zehar galdu edo ahaztutako objektuak. Jabeak epe horretan jaso beharko ditu bereak, antolakuntzak erabakitako ordutegi eta lekuan. Hamabost egun horiek igaro ondoren, antolakuntzak ez du mota honetako eskaerarik erantzunen.



Euskal Herria Mendi Erronka Kirol Elkarte

G71234975